

# Zer gertatzen da Kaukason?

**O**TSAILAZ geroztik, Yerevan-go manifestazioak direla, Sumgait-eko hilketak direla, armeniarren eta azeriarren arteko gatazkak direla, ia egunero irakur daiteke zerbait prentsan Kaukaso-ko gorabeherei buruz.

Eta ezer ulertzen hastekotan, on izango da hango egoera sozio-politikoaren berri larri-larrian bederen ematea.

## Kaukaso-ko antolaketa politikoa

**K**aukaso-ko lurraldean, *hiru Errepublika Federatu* daude (Sobietar Batasunean guztira horrelako hamabost daudelarik). Mendealdetik Ekialdera goazelarik, hiru hauek ditugu:

Georgia, 69.700 km<sup>2</sup>, 5.271.600 biztanle. Hiriburua: Tbilisi.

Armenia, 29.800 km<sup>2</sup>, 3.343.000 biztanle. Hiriburua: Yerevan.

Azerbaijan, 86.600 km<sup>2</sup>, 6.700.000 biztanle. Hiriburua: Baku.

Antolaketa, halere, hori baino korapilatsuagoa da.

*Georgia*-ren barruan, bi Errepublika Autonomo eta Eskualde Autonomo bat daude:

*Abkhazia*, Errep. Aut. 505.000 bizt. Hirib. Sukhumi.

*Adjaria*, Errep. Aut. 354.000 bizt. Hirib. Batumi.

*Hego-Osetia*, Esk. Aut. Hirib. Tskhinvali.

*Armenia*-ren barruan ez dago lurralde-zatiketarik. Baina Hegoaldean, Turkia-erikiko mugakide, azeriar *Nakhichevan* dago:

*Nakhichevan*, Errep. Aut. 239.000 bizt. Hirib. Nakhichevan. Azerbaijan-ekiko Armeniako lurraldeak berezirik, beraz, baina Azerbaijan-go parte.

*Azerbaijan*-en barruan azkenik, *Nagorno-Karabakh* deritzona dago:

*Nagorno-Karabakh*, Eskualde Aut. 138.000 bizt. Hirib. Stepanakert (armeniar Trebiño bat, nolabait esateko, Azerbaijan-en barruan).

## Lurralde horien naziotasuna

**G**EORGIAN, etnikoki, oso jende-sail nahasia dago. Erroldetan "georgiar" agertzen diren guztiak, ez dira georgiar. Bertako bi herri "anaiak", adibidez, ez dira, izan, georgiarrak:

Mingreliarrak, 350.000 lagun

Svandarrak, 40.000 lagun

Horiez gain, georgiarrak batere ez diren gainerakoak daude: armeniar pilo bat (milioi erdi bat inguru), azeriarrak, kurdotarrak, etab...

Georgiarrak, hitz batez, %66,8 besterik ez dira beren Errepublikan (Ez baita gutxi: Karelían gaur kareliarrak %11,1 besterik ez dira!). Maila guztietan, Unibertsitatea barne, georgiera da hizkuntza ofiziala eta egiazkoa.

Georgiarrak, tradizioz, kristauak dira; eta idazteko beren alfabeto berezia erabiltzen dute. Georgiera, edo "kartveliera", hizkuntza "kaukasikoa" da.

*Armenian* armeniarrek dira nagusi: %89,7. Baina pila bat bizi da Errusian barrena 'diaspora' gisa (Turkiatik aldeingandakoez gain, jakina).

Tradizioz kristauak dira. Armeniera ('hay'era, esan behar genuke) "indo-europar" hizkuntza da; eta alfabeto berezi batez idazten da (Yerevan-en gertatu diren manifestazioetako pankartetan nabarmen ikusi dugunez).

*Azerbaijan*-en, azkenik, azeriarrak dira nagusi: %78,1. Baina, han-hemenka, armeniar asko dago. Erlijioari dagokionez, musulmanak dira. Azeri-era, bestalde, "turkiar" multzokoa da. Petrolioa dela-ta, bai Baku bera eta bai Sumgait (biok Kaspioko itsasertzean) harrigarriro handitu dira mende honetan.

## Aste honetako gertakariak laburki

**M**ANIFESTAZIOAK *Stepanakert*-en hasi ziren otsailaren 11an; *Nagorno-Karabakh*-en, beraz. *Nagorno*-ko armeniarrek (Eskualde Autonomoko %80a direlarik) Azer-

baijan-dik irten, eta Armeniako Errepublikara pasatzea eskatzen zuten.

Oihartzun gisa, eta helburu berberarekin, otsailaren 18an hasi ziren Yerevan-en armeniarren manifestazioak; eta aste osoan barrena iraun zuten harrizteko moduan: "milioi bat manifestari" aipatu du «The Guardian»ek (1988-III-6ko alean). Yerevan-en gertatu da 1917az geroztik Sobietar Batasunean ezagutu den manifestaziorik handiena ("the biggest political demonstration since 1917").

Bi armeniar errezebitu ditu Moskun Gorbatshev-ek: Silva Kaputikyan, olerkaria; eta Zori Babayan, idazlea. Eta armeniarrei soluzio egoki bat proposatuko diela agindu die.

Agintza hori dela bide, martxoaren 26ra arte eten dira Yerevan-go manifestazioak. Stepanakert-en ezta hori ere!

Sumgait-en gertatu dira martxoaren 5an inkontrurik larrienak (Sumgait ez dago Baku-tik urrun, eta praktikan hiri berria da): tankeak berak irten dira kalera; eta Tass Ajentziak berak "32 hil" aitortu ditu. Kondakera ofizialaren arauera, "saltsa nahastale" batzuk piztu zuten istilua, eta hau armeniarren eta azeriarren artean mamitu zen.

Nekez lor daiteke, jakina, gertakarien azalpen zehatzik. Gauza bat dakigu segurki, ordea: armeniar abertzaletasunak piztu dituela istiluak; karkoa, nolabait esateko, «Armenia Batua» delarik.

Georgia-ko armeniar gutxiengoa ez bide da oraingo azaldu. Eta Turkia-ko armeniar gutxiengoaz (1915an gertatutako genozidioaren ondorioz, 1.500.000 lagunez urriturik!) nekez jakingo dugu ezer: Turkia 'demokratikoan' «Hego-Armenia»rik ez baitago.

Armeniarrak eta azeriarrak hizkuntzaz, erlijioz eta kondairaz bi herri desberdin dira.

Hots, ezker "ofizial" batzuren arauera, urte askotan barrena naziotasuna eta erlijioa fenomeno "axalekoak" direla entzun ondoren, badago Kaukaso-ko gertakarietan zertan gogoeta eginik.

TXILLARDEGI